


“ZANN” PULTSERA

Gure produktuaren funtsezko eginkizuna segurtasuna ziurtatzea izango da. Gehienbat emakumeei zuzenduta egongo da, eraso sexisten aurrean erantzuna eman ahal izateko; baina beste edonork ere erabili ahalko du. Jantzeko osagarrien (pultsera, zintzilikari...) artean berezia izango da, gure ongizatea bermatzen duen bakarra delako.

Esan bezala, produktu honek biztanleria osoaren segurtasuna ziurtatu dezake. Beraz, produktua biztanleria osoari zuzenduta egongo da.

Pultsera hainbat koloretako silikonan merkaturatuko da eta hiru botoi izango ditu, alboetan bi botoi eta erdiko handi bat.

Eraso edo arrisku baten aurrean, pultseraren alde bakoitzean larrialdi botoiak kokatuko dira, biak batera sakatzean larrialdi zerbitzutara deia egingo dutenak (112-ra).



Bestalde, hirugarren botoi bat egongo da erdian. Pultsera hau taldean erabiltzeko diseinatuta dago (lagun bakoitzak pultsera bat izan beharko du) eta haien artean sinkronizatuta egongo dira. Erdiko botoia sakatzean, talde berberan konektatuta dauden pultsera guztiak dizdira egingo dute, taldeko norbaitek laguntza behar duela adierazten.

Pultsera bi osagaiez osatuta egongo da: silikonarekin eta dispositibo teknologikoa (txip-a eta botoiak daramana). Txip honek hiru eginkizun izango ditu:

1. Pultsera guztien artean konexioa ezartzea.
2. Aplikazio batera konektatuta egotea.
3. Pultseraren lokalizazioa aplikaziora bidaltzea.

Beraz, norbaitek erdiko botoia sakatzean notifikazio bat bidaliko du taldeko mugikor guztietara (pultseraren dizdiraz gain).

Pultsera kargatzeko dispositibo hori silikonatik atera eta kargadore unibertsal batekin kargatuko da.

